



## Recurso 4/2016 errekurtsua Resolución 3/2016 ebazpena

### Lehendakaria / Presidente

Juan Ramón Ciprián Ansoalde

### Kidea / Vocal

M<sup>a</sup> Aranzazu Arana Learte

### Idazkari - Kidea / Vocal - Secretaria

María Yeregui Hernández

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAK kontratazioari buruzko ezarritako errekurtsu berezian (2016ko uztailaren 28an Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrak onartutako Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. faseko obra publikoaren emakida kontratu baldintzen agirien aurka), Kontratazio alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak, 2016ko urriaren 3ko bileran, goian zerrendatzen diren kideek parte hartuta, erabaki hau hartu du aho batez.

En el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA contra los pliegos de condiciones del contrato de concesión de obra pública del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa, fase 1, aprobados por la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa el 28 de julio de 2016, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales, en sesión celebrada el día 3 de octubre de 2016, con la asistencia de los miembros que arriba se expresan, ha adoptado por unanimidad el siguiente acuerdo.

## AURREKARIAK

**LEHENA.-** Epaitegi honetako erregistroan 2016ko abuztuaren 12an aurkeztutako idatzi baten bidez, (...) jaunak, TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEaren izenean eta ordezkari, kontratazio alorreko errekurtsu berezia ezarri zuen ebazpen honen izenburuan aipatutako agirien aurka.

Errekurtsoaren xedea da ezabatzea inpugnazioaren zioetan aipatzen diren administrazio baldintzen agiriko baldintzak, eta, ondorioz, lizitazioa ezabatzea eta agiri berri bat egitea zuzenbideari jarraikiz.

Berebat Diot formularen bidez, orobat eskatzen da kontratazio prozeduraren tramitazioa etetea; izan ere, inpugnazioaren zergatiek baldintza agirietako funtsezko gai batzuei eragiten diete, zeinak segurtasun-falta juridikoa eragiten baitute

## ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.-** Mediante escrito presentado en el registro de este Tribunal el día 12 de agosto de 2016, don (...), actuando en nombre y representación de la MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA, interpuso recurso especial en materia de contratación contra los pliegos citados en el encabezamiento de esta resolución.

El recurso pretende que se anulen las cláusulas del pliego de cláusulas administrativas particulares señaladas en los motivos de impugnación y, por lo tanto, se anule la licitación y se elabore un nuevo pliego conforme a derecho.

Mediante otrosí se solicita asimismo que se suspenda la tramitación del procedimiento de contratación, puesto que los motivos de impugnación afectan a cuestiones sustanciales de los pliegos de condiciones que generan

etorkizuneko lizitzaileen artean eskaintzak prestatzeko orduan, nekez konpondu daitezkeen edo konpondu ezin diren kalte handiak eraginez.

Idatziarekin batera, beste dokumentu batzuen artean, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari zuzendutako errekursoaren aurretiazko iragarkiaren kopia aurkezten da, hala egiteko eskatzen baitu Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 44.1 artikulua, zeina 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Arautzailearen bidez onartu baitzen.

**BIGARREN.-** Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 44.5 artikuluari jarraikiz, abuztuaren 16ko idatzi baten bidez, Epaitegiak errekurtsogileari eskatu zion hiru egun baldioduneko epean Mankomunitatearen Batzarrak errekurtoa jartzeko erabakia ekartzeko.

Epe barruan, errekurtsogileak zenbait dokumentu aurkeztu zituen. Horietatik, ondorioztatzen da (...) jauna Tolosaldeko Mankomunitateko lehendakaria dela 2015eko uztailaren 23an Batzarrak izendatu zuenetik; ekintza administratiboak eta judizialak gauzatzea Batzarrari dagokiola, Mankomunitatearen Estatutuetako 23 k) artikuluari jarraikiz; Estatutuetako 32 g) artikulua lehendakariari ekintza judizial eta administratiboak gauzatzeko eskubidea ematen diola baldin eta premiazko egoera bat badago, betiere Batzarrari jakinarazten badiu egiten den lehen bileran; eta 2016ko abuztuaren 11n lehendakariak erabaki zuela inpugnatzea auzitan dagoen kontratuaren agiriak onartu zituzten 2016ko uztailaren 28ko Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioko Batzar Orokorraren erabakiak, agertzea instantzia administratibo eta judizialen aurrean akordio horiek errekurritzeko, eta ebazpen horren berri ematea Mankomunitatearen Batzarrari hark egingo zuen hurrengo bileran. Hori guztia Epaitegiaren erregistroan sartu zen abuztuaren 23an.

**HIRUGARREN.-** Hurrengo egunean, Epaitegiak kopia bidali zion Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioari, eta eskatu zion espedientea eta errekursoari eta bertan eskatzen diren behin-


inseguridad jurídica en los futuros licitadores a la hora de preparar sus ofertas, pudiendo causar importantes perjuicios de imposible o difícil reparación.

Al escrito de interposición se acompaña, entre otros documentos, copia del anuncio previo de interposición del recurso dirigido al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, tal como exige el artículo 44.1 del Texto Refundido de la Ley de Contratos del Sector Público, aprobado por Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre (TRLCSF).

**SEGUNDO.-** De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44.5 TRLCSF, mediante escrito de 16 de agosto el Tribunal requirió a la recurrente para que en el plazo de tres días hábiles aportase el acuerdo de la Asamblea de la Mancomunidad decidiendo la interposición del recurso.

Dentro del plazo concedido al efecto la recurrente presentó varios documentos de los cuales se desprende que don (...) es el Presidente de la Mancomunidad de Tolosaldea desde su nombramiento en la Asamblea celebrada el 23 de julio de 2015; que el ejercicio de acciones administrativas y judiciales corresponde a la Asamblea, según el artículo 23 k) de los estatutos de la Mancomunidad; que el artículo 32 g) de los estatutos atribuye al Presidente la facultad de ejercitar acciones judiciales y administrativas en caso de urgencia, dando cuenta a la Asamblea en la primera sesión que ésta celebre; y que por resolución adoptada el 11 de agosto de 2016 el Presidente decidió impugnar los acuerdos de la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa de 28 de julio de 2016 por los que se aprobaron los pliegos del contrato en cuestión, comparecer ante las instancias administrativas y judiciales oportunas a fin de recurrir tales acuerdos, y dar cuenta de esta resolución a la Asamblea de la Mancomunidad en la primera sesión que ésta celebre. Todo lo cual tuvo entrada en el registro del Tribunal el día 23 de agosto.

**TERCERO.-** Al día siguiente el Tribunal remitió copia del recurso al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa y le requirió la remisión del expediente y del informe acerca del recurso y de las medidas



behineko neurriei buruzko txostena bidaltzeko.

provisionales que en él se solicitan.

Espedientea eta txostena abuztuaren 31n sartu ziren Epaitegiko erregistroan.

El expediente y el informe tuvieron entrada en el registro del Tribunal el día 31 de agosto.

**LAUGARREN.-** Irailaren 13an Tolosaldeko Mankomunitatearen idatzi bat jaso zuen Epaitegiak, atxiki zuena Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren Idazkariaren egiaztagiri bat, zioena (...) jaunak, (...) andreak eta (...) jaunak, Kontsorzioaren Batzar Nagusiko kideak hirurak, Tolosaldeko Mankomunitatearen ordezkartzan, honako honen aurkako botoa eman zutela: Gipuzkoako Ingurumen Gunearen 1. fasearen diseinua, eraikuntza, finantzaketa, operazioa eta mantenua obra publikoaren emakida esleitzeko kontratazio espedientearen inguruko gastua onartzeko eta esleipen prozedura hasteko erabakia. Ondorioz, ordezkartzen duten kontsorziatutako erakundearen botoa akordio horren aurkako boto gisa zenbatu zen.

**CUARTO.-** El 13 de septiembre se recibió en el Tribunal un escrito de la Mancomunidad de Tolosaldea adjuntando una certificación de la Secretaria del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, expresiva de que el señor (...), la señora (...) y el señor (...), miembros de la Asamblea General del Consorcio en representación de la Mancomunidad de Tolosaldea, votaron en contra de la aprobación del acuerdo relativo al expediente de contratación para la adjudicación, en régimen de concesión de obra pública, del diseño, construcción, financiación, operación y mantenimiento del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa, fase 1, aprobación del gasto y apertura del procedimiento de adjudicación, por lo que el voto del ente consorciado al que representan se computó como voto en contra del citado acuerdo.

## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**LEHENA.-** Errekurtso berezi hau arautze armonizatupeko obra publikoaren emakida kontratu baten agirien aurka ezarri da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 14.1 artikuluan jasotzen baitira.

**PRIMERO.-** El presente recurso especial se interpone contra los pliegos de un contrato de concesión de obra pública sujeto a regulación armonizada, de los contemplados en el artículo 14.1 TRLCSP.

Beraz, kontratazio alorreko errekurtso berezia jar daiteke errekurritutako egintzaren aurka, hala xedatzen baita Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko 40. artikuluko 1.a) eta 2.a) ataletan.

Por lo tanto, el acto recurrido es susceptible de recurso especial en materia de contratación por así disponerlo los apartados 1.a) y 2.a) del artículo 40 TRLCSP.

1992ko azaroaren 26ko 30/92 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, kontsorzioen araubidea arautzen duenak, hogeigarren xedapen gehigarrian ezartzen dituen atxikipen irizpideei jarraikiz, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa Gipuzkoako Foru Aldundira atxikitako kontsorzio bat da.

De acuerdo con los criterios de adscripción establecidos en la disposición adicional vigésima de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, que regula el régimen jurídico de los consorcios, el Consorcio de Residuos de Gipuzkoa es un consorcio adscrito a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Ondorioz, errekurtsoa ebazteko eskumena

En consecuencia, la competencia para conocer del

Epaitegi honi dagokio, 2010eko irailaren 28ko 24/2010 Foru Dekretuak, Kontratu Baliabideen Foru Administrazio Epaitegia sortzeari eta arautzeari buruzkoa, 2.1 artikulua esleitzen baitio.

**BIGARRENA.-** Tolosaldeko Mankomunitateak errekurtsioa jartzeko legitimazioa honetan oinarritzen du:

*"Errekurtsogilearen legitimazio aktiboa: Gipuzkoako Hondakinen Kontsordzioko Batzar Nagusiko eskubide osoko kide izateak ematen dion eskubidea da, zeinetan onartu baitira Gipuzkoako Ingurumen Guneko diseinurako, finantzaketarako, eraikuntzarako, operaziorako eta mantenurako kontratua arautuko duten baldintza agiriak, ordezkatzen dutan Mankomunitateari eragiten baitio, 3/2011 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 42. artikuluari jarraikiz".*

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, *"errekurtsioaren xede diren erabakiek kaltetu dituzten edo kaltetu ditzaketen eskubide edo interes legitimoen jabe diren pertsona fisiko edo juridiko guztiek jar dezakete kontratazio arloko errekurtsio berezia".*

Interes legitimoaren kontzeptua zehazki dago definitua jurisprudenzia konstituzionalean eta administrazioarako auzietan, eta, haren arabera, errekurtsiogileak frogatu behar du interes kualifikatua duela, zehatza eta egiazkoa auzitan dagoen objektuarekiko, eta haren emaitzak bere inguru juridikoan modu garbian eta nahikoan eragin dezakeela; eta ez da aski, errekurtsogilearen legitimaziorako, legetasun ustez apurturen interes arrunt eta orokorra, ordenamendu juridikoak herri ekintza onartzen duen kasu mugatuetan izan ezik, zeina ez baita gertatzen kontratazio publikoan.

Horrela, Epaitegi Konstituzionalak hainbat epaitan zehaztu du (2007ko martxoaren 12koa, adibidez), Espainiako Konstituzioaren 24.1 artikulua aipagai duen interes legitimoari dagokionez, *"ezaugarri du harreman material zalantzarik*

recurso corresponde a este Tribunal, al que le viene atribuida por el artículo 2.1 del Decreto Foral 24/2010, de 28 de septiembre, de creación y regulación del Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales.

**SEGUNDO.-** La Mancomunidad de Tolosaldea basa su legitimación para interponer el recurso en los siguientes términos:

*"Legitimación activa del recurrente: deriva del derecho de ser miembro de pleno derecho de la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, en cuyo seno se han aprobado los pliegos de condiciones que han de regir el contrato para el diseño, financiación, construcción, operación y mantenimiento del Complejo Medioambiental de Gipuzkoa, al verse afectada la Mancomunidad a la que represento, de acuerdo con el art. 42 del TRLCSP 3/2011".*

Según el citado artículo 42 TRLCSP *"podrá interponer el correspondiente recurso especial en materia de contratación toda persona física o jurídica cuyos derechos o intereses legítimos se hayan visto perjudicados o puedan resultar afectados por las decisiones objeto de recurso".*

El concepto de interés legítimo se ha definido de forma exhaustiva por la jurisprudencia constitucional y contencioso-administrativa, según la cual el recurrente debe probar que tiene un interés cualificado, específico y real por su ligazón al objeto del litigio, y que su resultado puede repercutir de forma clara y suficiente en su esfera jurídica, no bastando a los efectos de la legitimación de la recurrente el interés simple y general de la eventual restauración de la legalidad supuestamente vulnerada, salvo en los limitados casos en los que el ordenamiento jurídico reconoce la acción popular, lo que no acontece en materia de contratación pública.

Así, el Tribunal Constitucional en numerosas sentencias, como en la 52/2007, de 12 de marzo, ha manifestado, en relación con el interés legítimo al que se refiere el artículo 24.1 de la Constitución Española, que *"se caracteriza como una relación*



*gabeko bat izatea subjektuaren eta xede den objektuaren artean (inpugnatutako ekintza edo xedapena), hots, ezabatzeak automatikoki izatea aldeko eragin bat (etekin bat) edo kontrako eragin bat (kalte bat), egungoa edo etorkizuneko baina ziurra, eta ulertu behar da harreman horrek interes bat izan behar duela, propioa, kalifikatua eta zehatza, egungo eta egiazkoa (ez potentziala edo balizkoa). Abantaila baten edo erabilpen baten titulartasun potentzial bat da, ez ondare edukikoa nahitaez, auzia jartzen duenaren aldekoa, gauzatzen dena auziak arrakasta badu. Edo, bestela esanda, interes legitimoa bilatzen den erreparaziotik datorren abantaila edo erabilpen juridikoa da (2000ko urriaren 30eko Epaitegi Konstituzionalaren 252/2000 epaia, FJ 3; eta Epaitegi Konstituzionalaren 2006ko martxoaren 13ko 73/2006 Epaia, FJ 4: eta Epaitegi Konstituzionalaren 2005eko otsailaren 15ko 28/2005 epaia, sindikatu bati buruzkoa, FJ 3)".*

Kontratu errekurtsoen organoen doktrinak, interes legitimoaren definizioa interpretatzean, aintzat hartu ditu lizitazaileak eta balizko lizitazaileak, eta esleipenaren prozedurarekin lotura erakusten duten hirugarren ez lizitazaileak. Baina kasu guztietan berariazko interes eragindako edo kaltetu bat dagoela erakutsi behar da, esleipenaren markoaren barruan botere esleitzaileak eragindakoa.

Aztertu behar da, beraz, kasu honetan Tolosaldeko Mankomunitateak ba ote duen interes legitimorik zentzu propio berezi eta kalifikatuan aurkeztutako errekurtsuan, hots, auzia gauzatzen duenak abantaila egoera bat edo erabilpen juridikoko egoera bat duela, eta gauzatuko litzatekeena, aurrera ateraz gero, izaera material edo juridikoko etekin bat lortzean, edo kalte bat saihestean, betiere etekin hori edo kalte hori saihestea egiazkoa bada eta ez balizkoa bakarrik.

Errekurtsoak hamazazpi inpugnatzeko zio garatzen ditu eta ez gutxiago, eta amaitzen du esleipena ezabatzeko eta zuzenbidearekin bat

*material unívoca entre el sujeto y el objeto de la pretensión (acto o disposición impugnados), de tal forma que su anulación produzca automáticamente un efecto positivo (beneficio) o negativo (perjuicio) actual o futuro pero cierto, debiendo entenderse tal relación referida a un interés en sentido propio, cualificado y específico, actual y real (no potencial o hipotético). Se trata de la titularidad potencial de una ventaja o de una utilidad jurídica, no necesariamente de contenido patrimonial, por parte de quien ejercita la pretensión, que se materializaría de prosperar ésta. O, lo que es lo mismo, el interés legítimo es cualquier ventaja o utilidad jurídica derivada de la reparación pretendida (SSTC 252/2000, de 30 de octubre, FJ 3; 173/2004, de 18 de octubre, FJ 3; y 73/2006, de 13 de marzo, FJ 4; con relación a un sindicato, STC 28/2005, de 14 de febrero, FJ 3)".*

La doctrina de los órganos de recursos contractuales, al interpretar esa definición de interés legítimo, ha considerado que incluye tanto a licitadores o posibles licitadores como a terceros no licitadores que demuestren un vínculo con el procedimiento de adjudicación. Pero en todos los casos hay que demostrar la existencia de un interés legítimo afectado o perjudicado por la actuación del poder adjudicador en el marco de una licitación.

Procede analizar, por tanto, si en el presente caso la Mancomunidad de Tolosaldea detenta ese interés legítimo en sentido propio, específico y cualificado en el recurso presentado, que equivale a la titularidad de una posición de ventaja o de utilidad jurídica por parte de quien ejercita la pretensión, y que se materializaría, de prosperar ésta, en la obtención de un beneficio de índole material o jurídica, o en la evitación de un perjuicio, con tal que la obtención de ese beneficio o evitación del perjuicio sea cierta y no meramente hipotética.

El recurso desarrolla nada menos que diecisiete motivos de impugnación y termina solicitando la anulación de la licitación y que se elabore un

datoren agiri berri bat egiteko eskatuz.

Errekurtsoa jartzeko idatzian ikus daiteke ez dagoela inolako loturarik inpugnatzeko zioen eta agiriek errekurtsogileari eragingo lioketen balizko kalte baten artean. Errekurtsogileak ez du aipatzen errekurritutako lizitazioak zein eskubide edo interes legitimo kaltetu zaizkion.

Izan ere, aipatzen dituen kalteak, hartara esleipen prozedura kautelaz bertan behera eskatzea zurtzeko, lizitazailerik eragiten dizkieten kalteak dira, ez erakunde errekurtsogileari.

**HIRUGARRENA.-** Egia, errekurtsogileak lotzen bide du bere eskubidea edo interes legitimoa akordioa inpugnatu zuen organoko kide izate hutsarekin bakarrik.

Izan ere, Tolosaldeko Mankomunitatea Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioko kidea da, zeinetan orobat baitaude Gipuzkoako Foru Aldundia eta beste zazpi udal mankomunitate.

Kontsortzioa 2007an eratu zen, xede nagusi zuela hiri hondakinen altako kudeaketa egitea, hori izanik Gipuzkoako Hiri Hondakinak Kudeatzeko 2002-2016ko Plan Orokorrean aurreikusten diren azpiegiturak sortzeko eta ustiatzeko beharrezko diren jarduera oro, zeinak kontsortzioko erakunde bati baino gehiagori zerbitzu eman baitiezaiekete.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2010eko ekainaren 18an argitaratutako estatutuen arabera, Kontsortzioaren gobernu organo gorenak Batzar Orokorra da, non ordezkaturik baitaude kontsortzioko erakunde guztiak, bakoitza hiru ordezkariekin eta boto ponderatu batekin.

Zehazki, Tolosaldeko Mankomunitateak Kontsortzioan duen ordezkari-tza (zeina kalkulatu baita Mankomunitate hori osatzen duten udalerrietako biztanle kopurua kontsortzioko erakunde guztietako biztanle

nuevo pliego conforme a derecho.

En el escrito de interposición del recurso puede apreciarse la ausencia de toda vinculación entre los motivos de impugnación alegados y el hipotético perjuicio que los pliegos impugnados inferirían a la recurrente, que no menciona qué derechos o intereses legítimos podrían verse afectados por la licitación recurrida.

De hecho, los perjuicios que alega para justificar la solicitud de suspensión cautelar del procedimiento de adjudicación serían perjuicios causados a los licitadores, no a la entidad recurrente.


**TERCERO.-** En realidad, la recurrente parece asociar su derecho o interés legítimo al mero hecho de ser miembro del órgano que adoptó el acuerdo impugnado.

En efecto, la Mancomunidad de Tolosaldea es miembro del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, del que también forman parte la Diputación Foral de Gipuzkoa y otras siete mancomunidades de municipios.

El Consorcio se constituyó en el año 2007 con el objeto primordial de realizar la gestión en alta de los residuos urbanos, entendiéndose por tal el conjunto de actividades necesarias para la creación y explotación de las infraestructuras previstas en el Plan Integral de Gestión de los Residuos Urbanos de Gipuzkoa (PIGRUG) 2002-2016 que pueden dar servicio a más de un ente consorciado.

Según los estatutos publicados en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 18 de junio de 2010, el máximo órgano de gobierno del Consorcio es la Asamblea General, en la que están representadas todas las entidades consorciadas, cada una de ellas con tres representantes que cuentan con voto ponderado.

En concreto, la representación de la Mancomunidad de Tolosaldea en la Asamblea General del Consorcio, calculada en función del número de habitantes de los municipios que la componen por relación al número de habitantes



kopuruarekiko) % 5 da.

Hori bai, kontratazio alorreko errekurtso bereziari, izanik administrazioarekiko auziarekiko nahitako aurretiazko errekurtsoa, aplikagarri zaio 1998ko uztailaren 13ko 29/98 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 20 a) artikuluan dioena, hots, *"ezin dute ezarri administrazioarekiko auzi errekurtsorik herri administrazio baten jardueraren aurka bertako organoek eta bere organo kolegiatuetakoa kideek, non eta ez duen lege batek berariaz baimentzen"*.

Ondorioz, Tolosaldeko Mankomunitateak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren Batzar Nagusiaren kide den aldetik, ezin du errekurtso berezirik jarri kontratazio alorrean, ezta administrazioarekiko auzi errekurtsorik organo horrek onartutako agirien aurka ere.

Ordezkariek erabakiaren aurkako botoa emango zuten, eta, ondorioz, Mankomunitatearen botoa kontrako boto gisa zenbatu zen, baina horrek ez die ematen legitimaziorik inpugnatzeko, hori ez baitu inolako legerik berariaz ahalbideratzen.

1998ko uztailaren 13ko 29/98 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 20 a) artikuluan dakarren arauak oinarria du administrazio organoen erabakiak gehiengoaren arauen pean hartzen direlako legezko xedean, administrazio egoitzako eztabaida propioek eremu jurisdikzionalera jauzi egin gabe.

Izan ere, Konstituzio Auzitegiaren 397/2005 autoak, azaroaren 8koak, ez zuen onartu 6743/2003 konstituzio-kontrakotasuneko arazoa, zeina planteatu baitzen Konstituzioaren 24.1 artikuluan balizko urratze baten inguruan 1998ko uztailaren 13ko 29/98 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 24.1 artikuluan dakarren *"eta organo kolegiatuetakoa kideak"* esaldia dela eta. Autoak dio, hirugarren oinarri juridikoan, auzitan jarritako arauaren helburua dela saihestea egoitza

total de los municipios integrados en los entes consorciados, es del 5%.

Ahora bien, al recurso especial en materia de contratación, por ser un recurso potestativo previo al contencioso-administrativo, le es de aplicación el artículo 20 a) de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa (LJCA), a tenor del cual *"no pueden interponer recurso contencioso-administrativo contra la actividad de una Administración pública los órganos de la misma y los miembros de sus órganos colegiados, salvo que una ley lo autorice expresamente"*.

Por consiguiente, la Mancomunidad de Tolosaldea, en su condición de miembro de la Asamblea General del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, no puede interponer recurso especial en materia de contratación ni recurso contencioso-administrativo contra los pliegos aprobados por dicho órgano.

El solo hecho de que sus representantes votaron en contra del acuerdo y de que, por tanto, el voto de la Mancomunidad se computó como voto en contra del mismo, no le confiere legitimación para impugnarlo, por la sencilla razón de que ninguna ley lo autoriza expresamente.

La norma del artículo 20 a) LJCA tiene su fundamento en el designio legal de que las decisiones de los órganos administrativos se adopten en su seno de acuerdo con las reglas de la mayoría aplicables, sin que los debates propios de la sede administrativa se trasladen al ámbito jurisdiccional.

En efecto, el auto del Tribunal Constitucional 397/2005, de 8 de noviembre, que inadmitió la cuestión de inconstitucionalidad 6743/2003 planteada por posible vulneración del artículo 24.1 de la Constitución en relación con el inciso *"y los miembros de sus órganos colegiados"* del artículo 20 a) LJCA, señala en su fundamento jurídico tercero que la finalidad del precepto cuestionado es la evitación de conflictos de intereses o de puntos de vista (de cualquier tipo: discrepancias jurídicas, técnicas, de oportunidad, políticas) en

judizialean subjektu publiko beraren barruko interes eta ikuspuntu gatazkak (edonolakoak: eztabaida juridikoak, teknikoak, aukerazkoak, politikoak). Organo kolegiatu baten barruan bozketa bat galdu duenaren kontrako iritziak ezin dira bihurtu prozesu, organo judizialen aurrean. Hori guztia, noski, Lege batek kontrakoa aurreikusi ezean. 1998ko uztailaren 13ko 29/98 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa arautzen duenak, 20 a) artikuluan jasotzen duen arau debekatzaila, ordea, ez da jokoan sartzen gatazkak inputazio zentro bereizietako bi subjekturen artean direnean; Administrazioa, batetik, eta bere eskubide eta propioak dituen eta haren aurka aurkezten den subjektu bat, bestetik.

Tokiko Administrazioaren eremuan, 1998ko uztailaren 13ko 29/98 Legeak, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa erregulatzen duenak, 20 c) artikuluan ezartzen duen debekuaren salbuespen bakarra Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 63.1.b) artikuluan arautzen da. Haren arabera, "*administrazioarekiko auzi prozesuko erregimen orokorrean legitimitatea duten subjektuekin batera, tokiko erakundeen erabakiak eta egintzak inpugnatu ahal izango dituzte akordio eta egintza horietan aurkako botoa eman duten Korporazioetako kideek*".

Ondorioz, Tokiko Erregimeneko Oinarrien Legearen 63.1.b) artikulua ez dio legitimitaterik ematen Tolosaldeko Mankomunitateari Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioaren akordioak inpugnatzeko, arau horrek onartzen duen legitimazioa tokiko korporazioetako kide hautetsientzat bakarrik baita, hautesleen eskutik jaso duten ordezkariak mandatu dela eta.

**LAUGARREN.-**Kasu honetan, Tolosaldeko Mankomunitateak ez du eskubide edo interes propio edo bereziturik Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioarekiko. Ez da ikusten beste interesik, ez bada legearen defentsa hutsa, eta hori ez da, esanda dagoen bezala, elementu legitimatzaile nahikoa.


sede judicial dentro de un mismo sujeto público. Las discrepancias de opinión de quien ha perdido una votación en el seno de un órgano colegiado no deben transformarse en procesos ante los órganos judiciales. Todo ello, naturalmente, salvo que una Ley prevea lo contrario. En cambio, la regla prohibitiva del artículo 20 a) LJCA no entra en juego cuando el conflicto enfrenta a dos sujetos como centros de imputación diferenciados: la Administración, de una parte, y un sujeto que se presenta frente a ella con sus propios derechos e intereses.

En el ámbito de la Administración local la única excepción a la prohibición del artículo 20 a) LJCA se regula en el artículo 63.1.b) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local (LBRL), a cuyo tenor "*junto a los sujetos legitimados en el régimen general del proceso contencioso-administrativo podrán impugnar los actos y acuerdos de las entidades locales que incurran en infracción del ordenamiento jurídico los miembros de las Corporaciones que hubieran votado en contra de tales actos y acuerdos*".

Por consiguiente, el artículo 63.1.b) LBRL no confiere legitimación a la Mancomunidad de Tolosaldea para impugnar los acuerdos del Consorcio de Residuos de Gipuzkoa, pues la legitimación que dicho precepto reconoce está reservada exclusivamente a los miembros electivos de las Corporaciones locales y solo en el seno de éstas, por razón del mandato representativo recibido de los electores.

**CUARTO.-** En el caso que nos ocupa la Mancomunidad de Tolosaldea carece de un derecho o interés propio y diferenciado frente al Consorcio de Residuos de Gipuzkoa. No se percibe en ella otro interés que el de la mera defensa de la legalidad, lo que no basta, según hemos dicho, como elemento legitimador suficiente.





Laburbilduz, kontratazio alorrean errekurtso berezia jartzeko beharrezkoa den legitimaziorik ezak berekin dakar errekurtsoa ez onartzea.

Ondorioz, ez dago zertan sartu alegatutako inpregnazioaren zioetan, eta ez da beharrezkoa kontratazio prozedura eteteko eskaera ebatzea, etete horrek ezin baitu eragin inola ere interesdunek eskaintzak eta proposamenak egiten duten epean, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 43.4 artikuluari jarraikiz, eta epe hori, 2016ko irailaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean irarritako luzapenaren ondoren, ez da amaituko datorren urriaren 27ra arte.

**BOSGARRENA.-** Errekurtsoan ez dugu antzeman, Kontratuen Legeko 47.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, auzitegi hau errekurtsogilei isuna jartzera bultza lezakeen fedetxar edo ausarkeriarik.

Ondorioz, Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Foru Auzitegi Administratiboak

### ERABAKITZEN DU

Ez onartzea TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAK jarritako kontratazio-arloko errekurtso berezia.

Kontratuen Legeko 49.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Aretoan, erabaki hau jakinarazten den egunaren biharamunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

En definitiva, la falta de la legitimación necesaria para interponer el recurso especial en materia de contratación conduce a acordar su inadmisión.

Por consiguiente, no procede entrar a analizar los motivos de impugnación alegados, ni tampoco es preciso pronunciarse sobre la solicitud de suspensión del procedimiento de contratación, dado que la suspensión no puede afectar en ningún caso al plazo concedido para la presentación de ofertas o proposiciones por los interesados, según dispone el artículo 43.4 TRLCSP, y ese plazo, tras la prórroga anunciada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 26 de septiembre de 2016, no finaliza hasta el próximo día 27 de octubre.

**QUINTO.-** No se aprecia en la interposición del recurso la existencia de mala fe o de temeridad que mueva al Tribunal a imponer a la recurrente una multa en los términos previstos en el artículo 47.5 TRLCSP.

En su virtud, el Tribunal Administrativo Foral de Recursos Contractuales

### ACUERDA

Inadmitir el recurso especial en materia de contratación interpuesto por la MANCOMUNIDAD DE TOLOSALDEA.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 49.1 TRLCSP, contra esta resolución cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contado a partir del día siguiente al de su notificación.

**Donostia, 2016ko urriaren 3a / San Sebastián, 3 de octubre de 2016.**